



Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 27koa. Horren bidez amaitzen da industri enpresa batetik datozen zaratengatik planteatutako kexa espedientea

Aurrekariak

1. Zaldibiako herritar batek, auzo elkarte bat ordezkatuaz, (...) SL industri enpresak eragiten dituen oztopoak salatu ditu erakunde honen aurrean.

Adierazten du (...) industrialdean dagoen enpresak ez dituela ezarritako ordutegiak betetzen eta zarata sortzen duela merkantzien garraioan eta jarduera burutzean, jarduerak atek irekita burutzen baititu eta zarata moteltzeko inolako iragazki akustikorik ez baitu erabiltzen.

Ondorioz, gertuen dauden auzotarrek ezin izaten dute lorik egin.

Amaitzeko, gai honi buruzko salaketak 2004ko irailean hasi zirela adierazten dute, eta orain arte ez zaiela erantzun egokirik eman.

Azkenik, adierazten dutenez jarduerak ez du irekitzeko dagokion lizentziarik.

2. Kexa sustatu duenaren gogoetak kontuan izanda, Arartekoaren erakundeak kexa espedientea tramitatzea erabaki du (1662/2011 erreferentzia) eta Zaldibiako Udalari informazioa eskatzea, gabezia horiek zuzentzeko aurreikusituen jardueren berri izateko.

2012ko martxoaren 7an sartu da erakunde honen sarrera erregistroan Zaldibiako Udalaren erantzuna eta egindako jardueren berri ematen digu:

Igorritako informazioaren arabera, jakinarazten du Zaldibiako Udalean 2008ko abuztuaren 22ko irteera datarekin (...) SL industri enpresari jarduera lizentzia eman zitzaiola neurri zuzentzaileak ezarrita.

Era berean, zaratagatiko baldintza higienikoen azterketa ere aurkeztu du, 2005eko abenduaren 12koa.

Gogoetak

1. Arartekotik zenbait balorazio egin dugu gai honi buruz eta egokia iruditu zaigu ebazpen honetan jartzea.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 55. artikulua arabera:

“Legearen II. eranskinean aipatzen diren jarduera eta instalazio publikoak zein pribatuak, eragozpenak sor baditzakete edo pertsoneri edo beren ondasunei arriskuak sortu, edo ingurugiroari kalteak eragiten badizkiote,





hurrengo ataletan aipatzen den lizentzia administratiboaren erregimenaren menpe geratuko dira funtzionatzen hasi baino lehen eta derrigorrez."

Zentzu honetan, Udalak erakunde honi zuzendutako idatzian dio:

"(...) enpresak badituela bai jarduera baimena, bai irekiera baimena. Beraz, bien Alkatetza Dekretuen copia eta neurri zuzentzaileak jartzen diren txostenen kopiak ere."

Udalak jardueraren lizentzia emateari buruzko agiriak aurkezten dituen arren, igorri dituen agiri horietan ez dago irekitzeko lizentziari buruzkorik.

Zentzu honetan, irekitzeko lizentzia ematearen aldeko txosten bat dago, udal arkitektoarena eta 2008ko abenduaren 17koa da. Baina ez da proposizio hori ageri den Alkatetzako Dekreturik igorri.

Kexa jarri duenak 2010eko ekainaren 10eko txosten berri bat atxiki du eta bertan arkitektoak dio:

"Finalmente, recordar al Ayuntamiento que la actividad no cuenta con la licencia de apertura, ya que falta por cumplimentarse las medidas correctoras impuestas y las derivadas del ruido son una parte."

Adierazi beharra daukagu, (...) SLri irekitzeko nahitaezko lizentzia eman ote zitzaion argitu beharra dagoela. Gogoratzea komeni da Auzitegi Nagusian behin eta berriro errepikatutako doktrina dela denbora igarotzea, zergak ordaintzea edo udalaren tolerantzia hutsa ez direla nahikoa lizentzia emateko ekintzaren edo lizentzia aitortzearen aurrean eta lizentziarik gabeko jarduera klandestinitzat hartzen da eta egoera irregulartzat hartzen da, ez du denbora igarotzeak legezko egiten eta udal agintaritzak bertan behera uztea erabaki dezake edozein unetan (AGE, 1998ko abenduak 16).

2. Igorritako informazioaren arabera, 2004ko irailean hasi ziren salaketak. Zehatz esateko, horren ondorioz *"zarataren baldintza higienikoez"* azterketa bat egin zen.

Txosten honen emaitzei buruz Udalak dio *"debido a la alta influencia de la carretera, no se puede demostrar cual es la influencia de las fabricas adyacentes."*

Espedientean dauden datuen arabera, Leq zarata maila baliokideak neurri zuzentzaileetan ezarritako dB(A)k gainditzen ditu erasandakoaren etxean, hau da:

"Hurbilen dauden etxebizitzetan ere, 8etatik eta 22etatik aurrera, zarata ezingo da izan 40 eta 30 dB (A) baino handiagoa, hurrenez hurren, Leq. 60





segundoko zarata-maila baliokidean, ezta 45 eta 35 dB (A) baino handigoa ere gehieneko balioetan. Halaber, berarizko udal-araupidetzaren kaltetan gabe ez dira 60 dB (A) gaindituko alboko industri jardueretan."

Hori horrela izanik, udal arkitektoak bere eskumenak erabiliaz txosten bat egin zuten 2010eko ekainaren 10ean eta adierazten du:

"Comprobándose (además) en la Revisión de las medidas correctoras impuestas por el Gobierno Vasco que el horario de la actividad no se ajustaba al indicado en el Proyecto de actividad tramitado y haciendo referencia además en informe 19-04-2005 que existían otros problemas añadidos... como solución se propone trabajar en el horario previsto y con las puertas cerradas y, si el ruido es superior al admitido por el Gobierno Vasco, tratar de insonorizar el pabellón por su interior."

Erakunde honetatik gogorarazi nahi da, jarduera hasteko ez dela nahikoa aldeko egiaztapen akta, baizik eta Udalak irekitzeko lizentzia eman beharra dauka (Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 61.4 artikulua).

3. Giza Eskubideen Europar Epaitegiaren doktrinak gogoratzen du etxebizitza errespetatzeko eskubidea ez dela soilik arau urratze materiala edo korporala, etxean baimenik gabeko norbait sartzea esaterako, baizik eta arau hauste ez materiala edo ez korporala ere badela, hala nola, zaratak, isurketak, usainak eta bestelako gorabeherak (GEEEE, 2004ko azaroak 16, Moreno Gómez kasua; GEEEE, 2011ko urriak 18, Martínez Martínez kasua).

Baina Epaitegi honek oinarrizko eskubidea aitortzeko eskatzen duen baldintzetako bat da jasan behar diren eragozpenak botere publikoaren ekintza edo gabezia baten ondoriozkoak izatea.

Gure kasuan, erakunde honek duen informazioaren arabera eta, bereziki, udal arkitektoaren txostenaren arabera, industri jardueraren ondoriozko kutsadura akustikoan behin eta berriro hausten dira (...) SLri ezarritako neurri zuzentzaileak. Beste soinua iturri batzuk ere egon daitezkeen arren, udal erantzukizuna kontuan izan beharko litzateke Zarataren legediaren ondoriozko kalitate akustikoko mailak lortzen ez direlako (azaroaren 17ko 37/2003 Legea eta urriaren 19ko 1367/2007 ED).

Kexan dauden datuak eta Udalak igorritako informazioa ikusita eta gainerako gogoetak kontuan izanda, igortzen dizugu honako





Ondorioa

Zaldibiako Udala bermatzailea da Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 64. eta 65. artikuluen arabera eta enpresari errekeritu behar dio bere egoera legezta dezan eta ezarritako neurri zuzentzaileak bete ditzan, legez kanpoko jarduera etetea edo ixtea nahi ez badu.

